

{ datorrena } Iñaki Soto

# Agertokien arabera ezaugarrietako bat bihurtu dela ukaezina da, eta egitate kezkarria da.

**M**ahai gainean bi aukera jartzea eta horietako bat txorakeria hutsa dela irudikatzea ez da agertokien arabera jokatzeko, baizik eta tranpa egitea eta jendea tontotzat hartzea. Koronobirusaren harira, ugariak dira horrelako argudioak ematen dituzten agintariak. Konbatitu behar den joera iruditzen zait. Benetan, uneotan, agertoki posibleen arabera ezaugarrietako bat bihurtu dela ukaezina da, eta egitate kezkarria da. Ziurgabetasunari aurre egiteko, ez dago hipotesiak tesi mugiezin gisa formulatzen dituzten fidatzerik.

Horrek ez du esan nahi liderrak zuzenak eta sendoak izan behar ez direnik, ezta gutxiago ere. Gidatu nahi duenak aukerak hobetsi behar ditu, argudioak eta azalpenak eman behar ditu. Argi eta garbi, baina tentuz.

## AUKERA BAKARREN KONTRA

Nire ustez, normaltasunerako itzulera geldoan baina etengabe ari garela dioten horiez fidatzerik ez dago. Adi, ezta mundua halabeharrez pikutara doala diotenez ere. Zalantza daukat, ezkerrentzat azken horiek ez ote diren arriskutsuak. Hain dira negatiboak, beti agertokirik okerrera hobesten dutela dirudiela. Jende askok behintzat horrela ikusten ditu, katastrofeari deika bezala. Oso jokabide nerabea da.

## POLARIZAZIOA

Askoren ustez, une historiko honen arazo nagusietako bat jendarten polarizazioa da. Batez ere Mendebaldeko munduaren barne polarizazioaz ari dira, hain zuzen. Zenbait kasuan, bloke horren eta gainontzeko herrialdeen arteko polarizazioa indartzen zenean ez zeuden orain dauden bezain kezkatuta. Polarizazioa kontrainsurgentziaren ardatzetako bat izan dela oroitu behar da.

Batzuentzat polarizazioa bera negatiboa da. Beste zenbaitentzat, gaur egungo indar erlazioak kontuan hartu-

ta, polarizazioaren emaitzak dira txarrak. Edozein kasutan, haserrea ezaugarrietako bat bihurtu dela ukaezina da, eta egitate kezkarria da.

Horrekin batera, erreakzionarioak izateko aukerak indartzen ari dira. Esaten denari baino gehiago, nork esaten duenari begiratzen diogu sarri. Horren arabera, alde edo kontra egongo gara, zorrotz gainera. Jokabide hori jendarte batentzat mortala dela iruditzen zait.

## SINPLIFIKAZIOA

Gauza konplexuak «oso errazak» direla esateko joera indartzen joan da. Igoal dio zertaz ari garen: gerraz, birusez, hezkuntzaz, kirolaz... Beti eta gauza guztien aurrean erantzun borobil bat izateko beharra ez da bideragarria. Jakina gauzak hobeto ulertzeko sinplifikatzea ona dela,

Jakina gauzak hobeto ulertzeko sinplifikatzea ona dela, baina gauzen konplexutasuna ulertzeko ditugun gaitasunak areagotzeko lan egitea ere beharrezkoa da

baina gauzen konplexutasuna ulertzeko ditugun gaitasunak areagotzeko lan egitea ere beharrezkoa da.

Uneotan sinplifikazioaren kontrako joera ere borrokatu behar da. Alegia, «hain zaila da zuek ez duzuela ulertuko eta utzi guri erabakiak hartzen» dioten posizio politikoa. Teknokratak beti daude agintea hartzeko prest. Interes handiak babesten dituzte.

## ALTERNATIBA, BENETAKO AGERTOKIAK AZALTZEA

Agertokien arabera gauzak planteatzea ez da erraza. Lan handia eskatzen du eta gainontzekoekin ezaugarrietako bat bihurtu dela ukaezina da, eta egitate kezkarria da. Ikuspuntu emankorragoa iruditzen zait, ordea. •